



1.130 APARKALEKU BERRI TOLOSAN

Herriko hiru zonaldeetan egokitu dituzte aparkalekuak; taxi-bus zerbitzua ere jarriko dute >2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2007-12-01**

V.URTEA 1302.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'18/98 auzi'ko Joxe Mari Olarra eta Mikel Egibar atxilotu dituzte

TOLOSALDEA Espainiako Auzitegi Nazionalak 46 lagun atxilotzeko agindu du; Txapartegiren bila ere joan dira

ADIERAZPENA «Askatasuna nahi duenak sufritu egingo du», esan zion HITZAri Olarrak atxilotu aurretik **4-5**



E. EZEIZA

LARRAITZ URRUZOLA BURATINI KONPAINIAKO ZUZENDARIA

«Antzerkitik bizitzea ez zela hain arraroa ikusi nuen»

TOLOSA Buratini konpainiaren 'Palabras de caramelo' antzezlanaren izango da gaur ikusgai 12:00etan Kultur Etxean 3

IÑAKI BETOLAZA GARRAIO ETA HERRI LAN SAILBURU ORDEA

«Euskadi AHTrik gabe ezin izango dugu imaginatu ere egin urte batzuk barru»

GIZARTEA «Asko eta oso garrantzitsuak dira AHTk ekarriko dituen onurak» **6-7**

IÑAKI BARCENA UNIBERTSITATE IRAKASLEA ETA EKOLOGISTA

«Politika guztiak baldintzatuz AHTk garapenkeriaren eredia markatzen du»

GIZARTEA AHTren Aurkako Asanblada eta AHT Gelditu Elkarlanean ari da, besteak beste **6-7**

denda
h

Ametsetarako hitzak

ipuin majian izkutatzen den euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,
HITZAren postuan
(Barrenkale, 73)



**LIBURUAREN
AURKEZPENA**
abenduaren 6an
16:00etan
Durangoko Azokako
Elkartegian

Geziari jarraituz gero 1.130 aparkaleku berriekin egingo dugu topo herrian

Azpiegiturak » Herriko hiru zonaldean egokitu dituzte aparkalekuak; taxi-bus zerbitzua ere jarriko dute doan

INIGO TERRADILLOS

Aurrerantzean, abiarazi duten kanpainaren ondorioz, N-1 errepidetik Tolosara sartzeko edozein sarbide hartzen delarik, aparkaleku batera heltzeko aukera, behar bezalaseinaleztatutako egongo da. Seinale hauek, Segi geziari! lelopean egongo dira herri guztian zehar banatuak, 30 guztira, eta herriaren erdialdetik gertu dauden aparkalekuen berri emango dute.

Egun Tolosan dauden obrak direla eta aparkalekuen murrizketa egon da, eta hori izan da ekimena abian jartzeko arrazoi nagusietako bat Udaleko ordezkarien esnetan. Hori eta laster herrian izango diren Txuletaren Festa, Gabonak edo Inauteriak bezalako ekitaldiak, egun horietan, bereziki herrian jende asko izango baita.

1.130 aparkaleku

Hala, esandako seinaleek emango dute aparkalekuen berri. Guztira, 1.130 aparkaleku izango dira herrian 3 zonaldean banatuta, eta horietatik 400 behin-behinekoak izango dira. Tolosako hegoaldeko irteeran, hau da, Alegia, Ikaztegieta, Goierrri aldetik datozenek ikusten dituzten seinaleei jarraituz San Esteban auzoko aparkalekuetara iritsiko dira. Hor 3 aparkaleku



Udaleko ordezkariak eta merkatarien elkarteetako ordezkariak, atzo aurkezpenean. I. TERRADILLOS

zona daude, 560 plazekin, eta doan. Bestalde, erdialdeko irteera Tolosako hirigunera iritsi nahi dutenentzat da. Bertatik ere 3 zonaldeetara heldu ahalko da: Zumardi Handian 80 plaza egongo dira doan, Zumardi Txikian 90 plaza TAO urdinarekin eta Kondeaneko Aldapan 200 plaza TAO berdearekin. Aparkaleku hau erabili ahaliko dute txartela duten bertakoek bai 1 zonakoek, bai 2 zonakoek; gainontzekoentzat zona berdean 1,55 euro egun erdian eta 3,10 euro egun osoan izango da ordaindu beharrekoa. Azkenik, hirugarren irteeratik, hau da, iparraldekoetik, gasolindegiko ondoan, Voith-Gorostidin egongo da beste aparkalekuak, doan, 200 autorentzako.

Taxi-bus zerbitzu doan

Hirugarren aparkaleku honetan, gainera, taxi-bus zerbitzua ere izango da, doan, Igarondo eta Alde

» ZENBAIT DATU

- **San Esteban auzoa.** Doan aparkatzeko 3 gune; 560 plaza; erdialdea oinez, 8 minutura.
- **Kondeaneko Aldapa/ Zumardi Handia/ Zumardi Txikia.** Hiru gune; Zumardi Handikoa doan; besteak TAO urdina eta berdea; 370 plaza; erdialdea 4 minutura.
- **Aita Larramendi Voith.** 200 autorentzako lekua doan; erdialdea 7 minutura.

Taxi-bus zerbitzua

- **Ibilbidea.** Aita Larramendi edo gasolindegiko ondo aparkalekutik Gorriti plazaraino eta alderantziz izango da egingo duen bidea.
- **Lekua.** 9 pertsonentzako lekua.
- **Denbora.** 5 minuturo egingo du bidea.
- **Zerbitzua.** Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era eskainiko du zerbitzua, goizez eta arratsaldez.

Zaharra Dendak elkarteek antolatuta, Gorriti plazaraino. Taxi-bus honek 9 pertsonentzako lekua izango du, eta gasolindegiko ondo aparkalekutik Gorriti plazaraino eta bertatik aparkalekura eramango du jendea. Zerbitzu honek hurrera onai izaten badu, San Esteban zonaldean ere jarriko dutela taxi-busa azaldu dute dendarien elkarteek. Halaber, herriko autobusa erabiltzea ere gomendatu dute.

Elkarrekin elkarlanean

Datorren astelehenean abiaraziko duten kanpaina hau kanpotarrentzat, eta tolosarrentzat ere bai dela azaldu dute. Eta abian jartzerako orduan, Merkatarien elkartearen elkarlana izan dutela ere zehaztu dute Udalek. Era berean, bai Igarondo bai eta Alde Zahara dendak elkarteek Udalaren esfortzua eskertu nahi izan dute ekimena gauzatzeko orduan.

Laburrak

Euskaraz hitz egiteko esku liburu sei hizkuntzatan

EUSKARA » Euskararen eguna dela eta Tolosaldea Garatzenek, Galtzaundi eta Eregikin batera, euskaraz hitz egiteko eskuliburu bat argitaratu du, atzeritarren artean, euskararen erabilera sustatzeko. a da. Hurrengo astetik aurrera jaso ahalko da Tolosaldea Garatzenen, etorkinen elkarteetan (Larramendi kalean) edo Galtzaundin.

Eguberrietako Shanti Txapelketan izen-ematea

FUTBOLA » Urtero bezala Eguberrietan Shanti Txapelketa antolatu dute. Aurtengoa 26.a izango da. 1994.etik 1999.era artekoek edukiko dute izen ematea, eta taldeko jokalariek guztiek ikastetxe berdinekoak izan behar dute, eta infantileko jokalariek federatuek ezingo dute jokatu. Abenduaren 15a izango da izen emateko azken eguna.

Jai Batzordearen bilera datorren astelehenean

KULTURA » Jai Batzordearen bilera izango da astelehenean, hilaren 3an, 19:00etan, Kultur Etxean. Inauteriak antolatzeko deitu dute bilera.

Igarondo elkarteak ekimen berria jarri du abian

MERKATARITZA » Igarondo Merkatarien elkarteak Gabonetako promozio berria jarri du abian. Abenduaren 21era arte iraungo du. Ekimen honen bidez, elkarteek zenbait denek bezeroei Gabonetako loteriako partaidetzak oparitu dituzte.



Eremu urriko hizkuntzez

KULTURA » Eremu urriko hizkuntzen inguruko mahai inguruak izan zen herenegun Errotan. Bertan Jacqueline Caniguan (Txile), Salustino Ayma Morales (Bolivia), Luis Segundo Cesar Pilatati (Ecuador) eta Sonia Salome Raymundok (Guatemala) euren lurralde-

tako esperientzia kontatu zuten, eta era berean Euskal Herriko egoeraz harrirituak geratu zirela kontatu zuten, «hemen ere euskara itzalpean utzia izan bada ere, asko aurreratu baita, eta gizarteko arlo gehienetan presentzia handia du». I. TERRADILLOS



Elkarbizitza positiboa xede

HEZKUNTZA » Samaniego H.I.ko komunitatea «elkarbizitza positiboaren garrantziak kalitatezko hezkuntzan duen eragina sumatuta», urteak daramatza gaia jorratzen, bai formakuntzan bai jardueretan. Ikasturte honetan erronka berri bati ekin dio, elkarbi-

tza plana diseinatzea, hain zuzen ere. Hala, urrian egin zuten lehendabiziko saioa, eta pasa den astean bigarrena, guraso (irudian) zein irakasleekin. Maria Jesus Uranga familia terapeutarekin ari dira pedagogia sistemako formakuntza saioak jasotzen. HITZA

E Elkarrizketa

LARRAITZ URRUZOLA ▶ Buratini konpainiako zuzendaria



ESTI EZEIZA

«1989 inguruan, ikusi nuen, antzerkitik bizi zitekeela, ez zela hain arraroa»

Kultura ▶ Larraitz Urruzola zuzendaria den Buratini konpainiaren 'Palabras de caramelo' antzezlanaren izango da ikusgai gaur; saioa 12:00etan izango da, Tolosako Kultur Etxean

ESTI EZEIZA

Larraitz Urruzola (Tolosa, 1964) izatez hemengo bada ere, urte asko daramatza Galizian bizitzen. Gaur Tolosan izango da Buratini konpainiarekin, bere azken lana aurkeztuz: *Palabras de caramelo*. Bertan haur gor baten historia kontakutzen du. Hau Saharako errefuxiatuen kanpamentu batean bizi da, eta gamelu baten ezpainetan poesia ezagutzen du. Honek, haurraren ikasteko gogoia pizten du eta bere komunitateko poesia ezagutzera emateko irrika. Hala, zeinuen eta ahozko hizkuntza uzartuz, istorio hau kontatuko dute Buratinikoek.

Nondik etorri zaizu txotxongiloetarako afizio hori?

Txikitatik datorkit. Eskolan nahiz etxean, antzerki munduko jokue-tan jolasten nintzen. Askotan, atsedendaldietan, ni eta nire ikaskideak komunean sartzen ginen eta han gure antzerkiak prestatzen hasten ginen. 3 eta 4 urteko haurren geletan sartzen ginen, eta baimena eskatzen genien gure antzezlanak prestatzeko. Gero ikastolan, antolatzen ziren antzerki guztietan hartzen nuen parte. Galiziara joan nintzenezan berriz, alde batera utzi nuen mundu hau. Baina, unibertsitatean, bi edo hirugarren mailan elkarrekin sartu nintzen eta antzerki eskolak jasotzen hasi nintzen. Gainera, irakasleak txotxongilo talde bat zeukan eta hor lanean hasi nintzen.

Baina urte gutxi beranduago, 1989an, afizio bat zena, lanbide bilakatu zen.

Bai, gero profesional gisa hasi nintzen, eta ordutik hor nabil, antzerkia, txotxongiloak eta ipuin kontatari lan uzartuz. Ikusi nuen, antzerkitik bizi zitekeela, eta ez zela horren arraroa. Askotan pentsatzen baitugu, injenieritza edo an-

tzeko zerbait ikasiz gero, errazago dela aurrera egitea. Baina, ikusten duzu ere, beste lan egiteko aukerak ere onak direla, eta gogoia jarritz gero posible dela.

Hurrengo pausoa, Buratini txotxongilo konpainia eratzea izan zen.

Bai, Buratini konpainia 1996an osatu genuen. Honekin, sei edo zazpi antzezlan igoiztu ditugu.

Antzezlan guztia zuek prestatzen al duzue?

Bai, gu arduratzen gara normalean lan guztiaz. Dena den, aldiren batean kontratatu izan ditugu beste batzuk txotxongiloak egiteko. Baina normalean guk egiten dugu dena. Obra bakoitzerako laguntzaileak beti bilatzen ditugu, baina kanpora ateratzen garenean konpainiako kideak bakarrik joaten gara.

Zein da antzerkiaren egoera Galizian?

Orain gutxi arte tradizio handirik ez zegoen, baina profesionalak lan handia egin dugu kultura hori indartzeko. Hala, orain, sei edo zazpi konpainia oso finkatuak daude eta

nazioarteko jaialdi ugarietan parte hartzen dute.

Euskal Herrian baino egoera hobean dagoela esango al zenue?

Egia esan, Euskal Herriko egoera ez dut gehiegi ezagutzen. Orohar, han egiten dut lan, beraz hemengo talderen bat ezagutzen badut, jaialdiren batean topatu garelako da. Horregatik, ez dakit zein den hemengo egoera.

Titirijain parte hartzen duzun hirugarren aldia da.

Bai, lehendabizikoz, haurrei zuzendutako lehen antzerki jardunaldietan etorri nintzen. Hortik urte batzuetara berriz, nire antzezlan bat aurkeztera etorri nintzen, *Palacio de papel* izenekoa.

Kanpotik zer moduz ikusten da jaialdia?

Oso ondo. Ikuskizun dezente ikusi ditut, eta orokorrean interesgarriak dira. Horregatik, jende guztia animatzen dut txotxongilo emaldiak ikustera. Izan ere, artiston helburua hori da, antzokiak betetzea eta dinamizatzea. Jaialdietan ez ezik, urtean zehar ere jendea antzerkiak ikustera joateko.

L Laburrak

Haur danborradarako kantineraren aukeraketa

AISIA ▶ Veleta-Aiz Orratzek antolatutako haur danborradarako kantineraren argazkiak aurkezteko epea hilaren 9an amaituko da. Interesatuak bi argazki aurkeztu behar dituzte elkartearen bertan, izenabizenak atzean jarrita.

Ken Zazpiren kontzertuko sarrerak salgai daude jada

MUSIKA ▶ Ken Zazpi taldeak hilaren 14an Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako sarrerak salgai daude jada. Alde batetik, Leidorreko leihatilan, zine saioen ordutegietan eskuratu daitezke. Bestela, Kutxa bidez, Servikutxan, telekutxan eta www.kutxa.net-en. Sarreraren prezioa 12 eurotakoa da.

Mendiluze eta Muñoa gaur arikodira, Ordiziako saioan

BERTSOLARITZA ▶ Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoa jokatu da gaur arratsaldean, 18:00etan, Ordiziako Majori kiroldegian. Bertan ariko dira: Aitor Mendiluze, Unai Muñoa, Aitor Sarriegi, Iñaki Zelaia, Joxe Munduate eta Iñaki Gurrutxaga.

Bonberenearen azken hamar urteak liburuan

GIZARTEA ▶ Bonbereneak 10 urte bete dituela ospatzeko oroigarri berezi bat prestatu dute, liburu bat hain zuzen ere. Bertan, Bonberenean azken hamarkadan izan diren gertakariak berri zein emanaldi guztien argazkiak eta abar biltzen dira. Argitalpena datorren asteartetik aurrera, eskuragarri izango da liburu dendetan, beste zenbaiten artean.

Eski irteera antolatu du Oargik hilaren 29-30erako

KIROLAK ▶ Oargi mendi elkarrekin eski irteera antolatu du hilaren amaierarako. Abenduaren 29an abiatuko dira Tolosatik, eta hurrengo egunean, eskiatu ondoren itzuli. Interesatuak hilaren 14a baino lehen eman beharko dute izena. Alpino, iraupen eta mendi eskia egiteko aukera izango da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Joxe Mari Olarra eta Mikel Egibar atxilotu ditu Espainiako Poliziak

Tolosaldeia » Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 auziko 46 lagun atxilotzeko agindua eman du; Txapartegiren bila ere joan ziren



250 lagun inguruko Joxe Maria askatasun eragilearen eragileak zuzentzen zuten arrialdan Villabonan egindako batzar informatiboa.

EREDAKZIOA
Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 auziko 52 inpartekatari 46 atxilotzeko agindua eman zuen atzo, «epia tristetako dagonez iher egiteko arriak» dagoeneste duela.
Atxilotuen artean auzkitzen dira Joxe Mari Olarra billabonarra eta Mikel Egibar zuzarkidarra. Tolosaldeia eta LEITZTALDEKO Hirzak lehenezagatik hiru egun zuzarkidatua izan baino minutu batzuk lehengo. «Espainiaren, gendearen esperantoa, nahai duena egiten du», adierazi zuen Olarra. 1515ean sartu zen Espainiako Poliziara bere etxera eta atxilotuta eramantzen zuten.

Arratsalde partean ere Mikel Egibar zuzarkidarra atxilotu zuten. Herriarte txapartegiaren goiza atxilotu zuten Guardia Zibilak. Bertanuek azaldu zuten, «entziso unak bihurtu ziren atxilotketaren unak».

Nekane Txapartegi atseasuararen bila ere joan zen polizia, azken honen etxean ikusitako saretelarik. Erredakzio hau 1810 zenerako Asteskoan ez zuen oraindik atxilotu. Eskalide izaten edo erakunde armatutako laguntza ematea leporatu diete gazteak.

Beste atxilotuak
Olarra eta Egibarrekin batera, Askatasun jakinarazi duenez, Espainiako Poliziari eta Guardia Zibilarik Alberto Prias, Elena Beloki, Txema Matanzas, Jexux Mari Zalakain, Javier Salatregi, Javi Sabañatze, Mikel Korta, Iñaki O'Shea,

Epaia oraindik ez da publikoa

Auzitegi Nazionalak zuzarkidatu ematen atxilotu. Inpartekatuak 4 eta 19 urte atxilotu karzela zigorak eskatzen dituzte. Ustez hileren 10ean atxilotu dute sententzia. Auzitegi Nazionalak oso eta eskola komunikabideen bitartez jakin dute berria, jendea atxilotzen hasi diren heinean. Teresa Toda inpartekatari azaldu duenez, «ez da oso ohiko prozedura hau, baina gurea ez da auzi normala izan, Eskal Herriaren erakuntzaren aurkako epailea izan da».

HAINBAT DATU

- Kronologia**
- 2005 azaroaren 21ean, 18/98 auziko hitza zen.
- 2005eko azaroaren 22an, 18/98 Kalea erikema martxa jatu zuten Villabonan.
- 2005eko abenduaren 13an, Nekane Txapartegi egindako tortura salaketaaren ahozko bistak (1999 salatu zuten eta 2003ean atxilotu zuten kasua, baina gaitzak).
- 2006ko urtarrilaren 10ean, Mikel Egibar zuzarkidarra eta Nekane Txapartegi atseasuarak torturaturatu izan zirela salatu zuten epailetan.
- 2006ko apirilaren 18an, Hasi ziren delatzen eskulidoko inpartekatuak. Egun horretan Joxe Mari Olarra eta Mikel Egibar eta hungarogorua Txapartegi.
- 2006ko urtarrilaren 6an, Egibarrek eta Txapartegi torturazale bat identifikatu zuten auzian. Aste horietan guardia zibilak batzuk hartu zuten parte auzian eta horietako bat identifikatu zuten.
- 2006ko urtarrilaren 8an, Bot Egin Eguna antolatu zuten, auzitegi babesa emateko.
- 2007ko martxoaren 14an, Ahozko epailetatik batzuk ziren. Espainiako Auzitegi Nazionalak inoiz egin den epailetarik luzeena izan da eta auzitegi gehien epaitu dituen.
- 2007ko ekainaren 17an, 18/98ko auzitegiak bost eguneko itxialdia egin zuten Gernika-Luumen (ekainaren 17tik 22ra).
- Eskulidoko inpartekatuak**
- Nekane Txapartegi, Xaki atala, 9 urte.
- Mikel Egibar, Xaki atala, 9 urte.
- Joxe Mari Olarra, Xaki atala, 9 urte.

«Demokrazia batean guztiak ez du balio, gogoratu nahi dituzte prozesuak, erregulatu eta buru gogortzen den... Eskubide politikoen arretak garbia izan da 18/98 auzian. Garbi eta harria dugu betarik epailetan izan dela kuzi dugu guztiak».

» ERREAKZIOAK

1.18/98 auzian' inpartekatuak atxilotzen hasi da Espainiako polizia, Auzitegi Nazionalaren aginduz. Zer iruditzen zaizu?

<p>«Ez gara erabaki judizialen balorazio egiten hasiko»</p> <p>Oscar Renedo EPEZ</p> <p>«Aurreko Osoko Bilkurutan esandako berdina errepikatuko dut orangean ere: ez gara hasiko erabaki judizialen balorazioa egiten. Justiziak badaki zer egin duen, eta guk erabaki horiek errespetatu egin behar ditugu, justiziarik ez izan behar dugun errespetatuagaitza».</p>	<p>«Eskubide politikoa urratu dituzte prozesu honetan»</p> <p>Onintza Lasa EPEZ</p> <p>«Demokrazia batean guztiak ez du balio, gogoratu nahi dituzte prozesuak, erregulatu eta buru gogortzen den... Eskubide politikoen arretak garbia izan da 18/98 auzian. Garbi eta harria dugu betarik epailetan izan dela kuzi dugu guztiak».</p>	<p>«Ez da existitzen eurek esaten duten demokrazia»</p> <p>Maitakel Arrieta EPEZ</p> <p>«Atxilotutakoak askatzeri hutsa dira. Horrela ez dago biltzerik. Iher egiteko arriak dagoela esan dute, baina orain arte heren egon badira norra jango dira ba orain? Behin eta berri ez esaten duten demokrazia ez da existitzen. Egnera konplikatua dago. Ez dago bakar egoteko arrazoirik».</p>	<p>«Ekitza judizial honek ez du lekukirik demokrazia»</p> <p>Marian Lazkano EPEZ</p> <p>«18/98 auziko 46 auzitegi atxilotuak atxilotuak, eta horietako bat herria dela kontuan izanik, Udalak gaitzak egiten du Auzitegi Nazionalaren erabakia. Ekitza judizial honek ez du lekukirik inongo estatu demokratikoa eta gure elkarbizitza galarazi besterik ez du egiten».</p>	<p>«Atxilotuak krisiaz eragiten dute»</p> <p>Ezker Batua</p> <p>«18/98 auzian herria gaur izan diren atxilotuak krisiaz eragiten dute eta justiziaz inaktibo dira. Horrela gertatzen justiziarren inpartekatuaren arrikan jartzen dute».</p> <p>«E-Taren bukaera gero eta gertuago dago»</p> <p>Alderi Popularrak</p> <p>«Justiziak honela eragiten badu funtzionatzen, E-Taren bukaera gero eta gertuago egongo dela ez dago inolako zalantzarik. E-Taren inguru sozial, politiko, mediatiko, ekonomiko eta nazioartekoa desegin egin behar da. Egun-garantzizua dela garatu esan behar da, inolako dudarik gabe, gainera».</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

«Nire aberria maite dut, badakit askatasuna nahi duenak sufritu egingo duela»

JOXE MARI OLLARRA » Atxilotua

Villabona '18/98 auzia' dela eta atxilotu izan baino minutu batzuk lehengo hitz egin ahal izan zuten HITZAK Ollarrek

MANOL GARCIA

Bere etxean negela hitz egin zuen TOLOSALDEKO ETA LEITZTALDEKO HITZAK. Joxe Mari Ollarrek, emazte, alaba eta seme-erakito noiz atxilotu zuten zain zeudela. Hain zuzen ere, minutu batzuk geroago atxilotu zuten billabonarra, 15:55ean inguruan. 9 urteko espetxe zigorra eskatu zuten Fisikabak Ollararentzat.

Epaia oraindik ez da publikoa baina inpartekatuak atxilotzen ari dira. Ez dute epaieren berri. Komunikabideetan atzera deitagitik dakit atxilotuak egin ari direla eta 46 lagunen kontra ari direla. Epaia atzera aurreko atxilotuak egin ari direla eta, «Espainiak ekoizte gaiztoa espero dute. Aspaldin izan dute hori. Nahi duena egiten du».

Epailetatik jakin aurretik atxilotzea onikoa al da? Atxilotuak onikoa batean egitea ez da kasualitate. Bihar eta etzi [gaur eta berriz] Auzitegi Nazionalak jatu du. Bi egunetan politzian ematen duen.

Nola sentitzen zara une honetan? Eskal herriar miliante bezala aberria maite dut, badakit askatasuna nahi duenak sufritu egin beharko duela. Espainiak Estatuaren erin bado negoziatu, onikoa atzera behar dugu henerdik. Atxilotzen nauten 18. aldia da eta 5. espetxera noia. Atxilotutako esperant, «ogera hau ez dion deialortu niretsat».

3. Alentzuak

Antzerkia
LEZOR
ARETÓN
Zehar gaur antzerki kolaborazioa
Hamaka kolaboratu dantzan
17:30
Sarrena da

Hitzaldi-etzabaida
TOLOSALDEKO KULTUR ETXEAN
19:30
• Hizkuntz dibertsitate berriaren eragina
Hizkuntza gutxiaren normalizazioa prozesuan.
Hilarde, Xotier Aierdi
Euskararen eraginak
Euskararen eraginak
Euskararen eraginak

5. Afora
4. Leturra sagardotegian
21:00
Ondoren Hilarde
Sarrena sagar
Baita Hilarde
Tingulako kaperak,
Kaperak eragiten
Sarrena sagar
Euskararen eraginak

Uztel Kirologia
Tolosa Tel. 943 577573
www.biddo.es

MAHAKA
RESERVO PRODUCTU NATURALA

ETA ORAIN PROBIGURRAK

Jogurta
MAGIUM USTIAK (SOPIN, LEZOR)
Tel. 943 673 499
Tel. Mugi. 809 900 633

MAHAKA
RESERVO PRODUCTU NATURALA

ETA ORAIN PROBIGURRAK

Jogurta
MAGIUM USTIAK (SOPIN, LEZOR)
Tel. 943 673 499
Tel. Mugi. 809 900 633

ARABURU
Salgai (Tolosa),
Epebizta Estela eskainien,
Salgai (Tolosa), Gueztan Balaien,
Salgai (Tolosa), Gorpak,
San Francisco eta Lezoi azpin,
Salgai eta Hozteko (Lasa),
Lopala, ximinirekin, zentroan,
Atxotako (Tolosa),
Epebizta, Haskiera kalan,
Atxotako (Tolosa),
Gorpak, San Francisco, lurra eta
Arria atxotzen.

BIOLOGIKOAK

- Elikadura • Zaliakoak
- Kirolorenazko nutrizioan aditukoak
- Benetako "Original Bibi" produktua

Korreko kalea, 3 • 943 674 140
San Francisco, 19 • 943 655 444
TOLOSA

ARABURU
Salgai (Tolosa),
Epebizta Estela eskainien,
Salgai (Tolosa), Gueztan Balaien,
Salgai (Tolosa), Gorpak,
San Francisco eta Lezoi azpin,
Salgai eta Hozteko (Lasa),
Lopala, ximinirekin, zentroan,
Atxotako (Tolosa),
Epebizta, Haskiera kalan,
Atxotako (Tolosa),
Gorpak, San Francisco, lurra eta
Arria atxotzen.

BIOLOGIKOAK

- Elikadura • Zaliakoak
- Kirolorenazko nutrizioan aditukoak
- Benetako "Original Bibi" produktua

Korreko kalea, 3 • 943 674 140
San Francisco, 19 • 943 655 444
TOLOSA

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

B Blogteka Euskararen Egunean
ekitaldiak Flemingean

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko eguna dela eta, Fleming Ikastetxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu asteazkenerako, abenduak 5erako, Arratzain eta Arroa eskolatan. Egun horretan, Arroan, HHko eskolan, gaztain jatea izango da goizean; eta arratsaldean, eskual jolasak burutuko dira patioan. Aldez aurretik, abenduaren 3an, irratsaio berezi bat egingo dugu guraso batzuren partaidetzarekin. Arratzainen, berriz, arratsaldean, maila bakoitzeko ikasleek beraien emanaldiak eskainiko dituzte jangelako aretoan; eta bukatzeko, denak patioan elkartuta eta korro erraldoia osatuz, *Euskaraz lehenik* abestia abestuko dugu.

Fleming Ikastetxearen Bloga
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming/>

Euskaren
Egunean
ekitaldiak
Jesusen Bihotza
Ikastolan

ERREDAKZIOA

Etzi Nazioarteko Euskararen Eguna dela eta, Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolan ekitaldi desberdinak burutuko dituzte. Haur Hezkuntzan, 10:00etan ikasleak ikastolako pasilloak apaintzen hasiko dira euskara gaitzat hartuta. 11:00etan Argi-txoren bisita izango dute eta haurrek olerkiak, abestiak eta antzeppen txikiak eskainiko dizkiote. 15:15ean, kalejira Berdura Plazan. 16:00etan, txokolatada plazan. Lehen Hezkuntzan, 10:00etan jolasak egingo dituzte eta ondoren euskara gaitzat hartuta. 15:15ean, kalejira Berdura Plazan eta 16:00etan txokolatada plazan.

DBH 1etik 4. mailara bitartekoek, 11:30ean Gurea zinemaren *Eutsi* filma ikusiko dute. 15:00ean, Olaederran kirolak egingo dituzte.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria eta zerbitzaria.** Sagardotegirako, sukaldaria eta zerbitzari lanetarako pertsona bat behar da. 660 65 43 17.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Adunan, 70 m²ko etxea. 25 m²ko atikoarekin. 608 57 59 00.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai

Bihar Anoetan herri galdeketa antolatu dute AHTren inguruan. Gai honetan alde eta kontra daudenen ahots esanguratsua biltzen dira ondorengo elkarrizketetan. Aldeko iritzia Iñaki Betolaza Garraio eta Herri Lan sailburuordeak ematen du. Kontrakoa Iñaki Barcena unibertsitate irakasle eta ekologistak.

«Urte batzuk barru ez dugu Euskadi abiadura handiko trenarik gabe imaginatu ahal izango»

IÑAKI BETOLAZA Garraio eta Herri Lan sailburuordea

IMANOL GARCIA

Eusko Jaurilaritza da AHTren bultzatzaile nagusia. Iñaki Betolaza Garraio eta Herri Laneko sailburuordea da.

Zein dira AHTren onurak?

Asko eta oso garrantzitsuak dira. Batez ere aurrera pauso ezinbestekoa da garraio modu jasangarriagoak bermatzeko. Euskal Y-ak auto eta kamioi asko erretiratu ditu errepideetatik, errepideetatik istripuen kopurua murriztuz eta airea botatzen den CO₂, kutsadura alegia, murriztuz; bigarrenik Europarekin eta penintsularekin lotuko gaituela behingoz, horrek ekonomiaren garapenari emango dion bultzada nabarmena izango delarik; eta hirugarrenik, abertzaleon ikuspegitik oso garrantzitsua dena: Euskal Herria hurbiltzeko balioko du, bai hegoaldekoak gure artean, bai Bidasoaz gaindi. Guggenheim, Bilboko metroa edota Nafarroarekin lotzen gaituen Leitzarango autobia bezain estrategikoa izango da Euskal Y-a. Urte batzuk barru ez dugu Euskadi abiadura handiko trenarik gabe imaginatu ahal izango.

Zein dira kalteak?

Hutsetik hasten den edozein azpiegiturak dituen ezaugarriak ditu: lurra hartuko du baina edozein autopistak eraikitzeak behar duenak baino askoz ere gutxiago. Euskal Y-aren ibilbidearen 10 kilometrotatik 6 lur azpitik joango dira. Energia kontsumituko du, baina energia elektrikoa, gaur egun energia berriztagarrien bitartez lor daitekeen bakarra. Errepideetan sortzen den kutsadura murrizteaz gain, ez dago alderatzerik energia kontsumoari dagokionez gainerako garraiobideekin. Nekazal lurzoruari dagokionez, lur jabeek izan ditzaketen kalte eta galerak txikitze aldera, Lurraneke bulegoa zabaldu dugu. Bestalde,



HITZA

eragin paisajistikoa izango du eta horregatik Euskal Y-a eraikitzean ahalik eta neurri zorrotzenak hartuko dira, bertako landareak berriro landatzeko, animalientzako pasabideak ahalbidetzeko... Euskal gizarteari egin dakiogekun kalterik handiena, egungo garraio sistema bere horretan uztea da, **Eusko Jaurilaritzak eta AHTren aurka daudenez erabiltzen dituzten datuak ez dute bat egiten.**

Eusko Jaurilaritzak errealtatean oinarritutako datuak erabiltzen ditu. Egungo errepide sarea gainezka dagoela eta benetazko alternatibak eskaini behar direla esateko dena den, aurpegian begiak izateak besterik ez da behar. Mugikortasunaz Eusko Jaurilaritzak egin dituen azken azterketek diote: Donostialdea, Bilbo Handia eta Gasteizen artean, egunero egunero 47.000 joan-etorri daudela; egunean 10.000 kamioi sartzen direla Biriaturtik; 100.000tik gora ibilgailu pasatzen dela egunero Donostiako sahisbideetik eta Europan ez bezala, merkantzien garraioaren gehiena, %80a, errepideez zeharkatzen duela Euskadi. Eta joerak, gero eta gehiago mugitzen garelara, bai bidaiarien eta bai merkantzien joan-etorriak gero eta gehiago direla dira. Hori guztia horrela utzi behar dugu edota benetazko alternatibak bilatu behar ditugu?

Eusko Jaurilaritzak gaiari buruz duen leloa 'Euskadi gera ez dadin' da. Garapen jasangarriekin bat egiten du?

Garapen jasangarriak egungo ongizate mailari eutsi ahal izateko beharrezkoa den garapenari egiten dio erreferentzia, baina ez edonola, jasangarria den modu batean baizik. Hots, jasangarria izan behar duela ikuspegi sozialetik, hau da, gure gizartearen kohesioa in-

terik behar duela; ekonomiaren ikuspegitik ere, gure enpresak lehiakorrak izan eta munduko edozein merkaturan lehiakorrak izan daitezten; eta ingurumenari zor diogun begiruneari dagokionez, ahalik eta neurri zorrotzenak kontutan hartuz natura babesteko. Hiru adar horietako bati bakarrik errepateak ikuspegi mugagura garamatza. *Euskadi gera ez dadin* leloak horixe adierazi nahi du.

Europako trenbide sarearekin bat egiteko beharra da AHT egiteko argudioetako bat.

Argudioa soilik ez, arrazoietako bat da. Eta ez nolanhikoa gainera. Europan zehar trenbideek zabalerak jakin bat dute; Bidasoatik alde

Zein enpresen onurara egingo da AHT? Beldurtu nahian mehatxuak jasotzen ari direnena?

honetara aldiz, estuagoak dira. Horrek esan nahi du ezin dutela tren berdinek besterik gabe batean eta beste an ibili. Horrela izan da historikoki, Estatuan modu batera eraiki zituztelako eta Europako gainerako herrialdeetan beste zabalera bat aukeratu zutelako. Penintsula, zentzu horretan, isolatuta egon dela esan genezake. Hori da hain juxtu, Estatu espainiarrean tren ez hain merkantzia gutxi garraiatzearen arrazoia. Europan, merkantzien %80 garraiatzen da trenaz; Estatu espainiarrean apenas %40a iristen den. Horregatik da hain garrantzitsua Euskal Y-a, Europan ohikoa den zabalera berdinean eraikiko denez, oztupoak gaindituta, Europako trenbide sarean bete-betean kokatuko gaituelako. Hain zuzen ere, Europako Batzordeak behin baino gehiagotan esan du, Euskal Y-ak garran-

tzia badu, Abiadura Handiko Trenbide sarearen ardatz nagusi baten parte izateaz aparte, behingoz Europarekin bat egiteko aukera emango duelako da eta beraz, merkantziak ere garraiatu ahal izango dituelako.

AHTren aurka daudenez informazio eza dagoela salatzen dute.

Bakoitzak bere leloa du. Eusko Jaurilaritzatik hainbat eta hainbat ekimen ari gara garatzen ahalik eta informaziorik txukunena bideratzeko. Trenbideak zeharkatuko dituen lur jabeen informazio zuzena eta pertsonalizatua emateko lehen aipatu dudana Lurraneke bulegoa zabaldu dugu. Udal ordezkariak dagokienez, trenbideak zeharkatuko dituen herrietako alkateekin batzartzen ari gara Euskal Y-ak ahalik eta eragin txikiena izan dezan neurriak adosteko. Interneten www.euskaly.com informazio kanala zabaldu genuen. Gipuzkoan, lanak hastearrekin batera, informazio modu erraz eta erosoan eskaintzen duten liburuxkak banatzen ari gara posta bidez, juxtu sasoi honetan. Halare, gehiago saiaturako gara.

Anoetan herri galdeketa egin nahi dute AHTri buruz.

Demokrazia batetan, herri galdeketa formula bat da, baina ez bakarria. Euskal Y-aren proiektua lantzen hasi zenetik orain 16 urte, hauteskunder hazteak herri-tarrek Euskal Y-aren alde gauden alderdiei eman digute gehiengo, hain zuzen ere, herritarren ordezkariak biltzen duten Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan. Herri kontsulta da bakarrik zilegia? Ziur nago hori esaten dutenek entzuzgor eginen diotela hauteskunder hauteskunde herritarrek esaten diotenari eta Euskal Y-a euskal erakundearen aurka jotzeko beste aitzaki bilakatu nahiean dabiltzela.

AHTren aurkaokoez diote enpresa eraikitzaileen onura ekonomikorako egingo dela proiektua.

Zein enpresen onurara? Beldurtu nahian mehatxuak jasaten ari direnena? Herritarren gehiengo zabalak estrategikotzat jotzen duen proiektu batetan lan egiteagatik indarkeriaren erabilera baztertzen ez dutenen «salaketak» jasaten dituzten enpresen onurara akaso? Euskal enpresek badakite Eusko Jaurilaritza ondoan dutela lanean jarraitzeko, beti egin duten modura, euskal herritarren onurarako eta guztiok jasotzen ditugun onurarako.

«AHTk garapenkeriaren eredia markatzen du, politika guztiak baldintzatuz»

IÑAKI BARCENA Unibertsitate irakaslea eta ekologista

IMANOL GARCIA

AHTren Aurkako Asanblada, AHT Gelditu! Elkarlana eta Tren Sozialaren Aldeko Sarearekin lan egiten du Iñaki Barcenak, hiruren lana «funtsezkoa» ikusten baitu. Zientzia Politikako irakaslea da EHUn eta Ekologistak Martxan taldeko kidea.

Zein dira AHTren onurak?

Azkartasunaz erotuta dagoen mundu honetan gutxi batzuk zenbait minutu aurrezte. Eta beste gutxi batzuk negozio ederra enpresa aurrekontu publikoen kontura.

Zein dira AHTren kalteak?

Asko dira baina nire uste apalean herri txiki honetan uzten duen hipoteka sozio-ekologikoa, hau da markatzen duen garapenkeriaren eredia, energia, garraio eta ingurumen edo gizarte politika guztiak baldintzatuz.

Eusko Jaurlaritzak eta AHTren aurka daudenek erabiltzen dituzten datuak ez dute bat egiten.

Informazioa kontrastatu egin behar da. Herritarrek duten informazioa proiektu honen aurkako eman dute. Eta gero eta informazio gehiago izan, jarrera kritikoa goak agertzen dira AHTrekiko. Duela urte batzuk Eusko Jaurlaritzak, euren enpresa aholkulariek esanda, ekologista, sindikalista edo

AHTren aurkako taldeekin ahalik eta gutxien bildu edo eztabaida publikoetan ez sartzeari erabaki zuen. Horregatik diogu inposaketa eta antidemokratikoa dela.

AHTrik ez bada egiten, Euskal Herria Europako garraibideetatik kanpo geldituko dela diote proiektuaren bultzatzaileek.

Europar AHT gutxi daude eta daudenak lautadetan mugitzen dira, ez eremu menditsuetan. Faltsua da oso Europarekin alderatuta azpiegitura gutxi ditugula. Pertsonako autopista kilometroetan Alemaniaren pareangau eta alemanak eta espainolak Europako lehenak dira. Egin nahi dutena ez da tren egoki edo sozial bat, oso elitista baita.

AHTren proiektua garapen jasagarritzat du Eusko Jaurlaritzak.

Duela 7 urtetik hona, Eusko Jaurlaritzak ingurumen adierazleak aditzera azaroan ematen dituenean, urtero esaten digute zarama eta energia kudeaketa hobea egingo dela, gero eta enpresa gehiago ingurumen kalitate zertifikatuak eta Tokiko Agenda 21 pila bat martxan daudela, baina hondakinen produkzioa, energia kontsumoa, autoa eta hegazkinen erabilera, porlana eta lurren artifizializazioa



LUIS JAUREGIALTZA/ARGAZKI PRESS

etengabe gorantz doa. Non dago jasagarritasuna? Zoritxarrez hazkunde ekonomikoa mito sakratutzat jotzen dute.

Eusko Jaurlaritzak zoritxarrez hazkunde ekonomikoa mito sakratutzat jotzen du

Zein izango litzateke garapen jasagarriarekin bat egingo lukene garraio eredia?

Hurbiltasuna, garraio ez motor-duna eta trafikorearen baretzea bilatzen duena. Hemen garraioa prin-

tzipalki negozio moduan ulertzen da, hori da Eusko Jaurlaritzaren dokumentu ofizialek diotena. Negozioa den heinean ez dago aldatzekarik.

AHTren aurka daudenek informazio eza daudela diozue.

Nuria Lopez de Gereñuk ez daki oraindik zenbat geltoki eta non izango diren eta baldin badakite ez dute argi esaten. Iluntasunez beteriko proiektu erraldoia da hau eta oso informazio gutxi dago. Sartu zaitezte euren web orrian, sakatu zuen herria eta ikusiko duzue. Dagoena da propaganda baina ez informazioa, hori beste kontu bat da.

Anoetan herri galdeketa egin nahi dute AHTri buruz.

Herri txikiak pentsatzen dena baino indar gehiago dute. Indarrak bilduz herri txikiak beto eskubidea ere lortu dezakete. Oso obra konplexua da. Desadostasun gradu altu batekin eramangaitza suerta daiteke. Horregatik kriminalizazioaren estrategia asmatu dute: AHTren aurkako aktibistabatberdin terrorista posible bat. Horren kontra agerian ipini behar dugu zenbat garen AHTren aurka eta herri kontsultak garrantzitsuak dira oso.

AHTren aurkako enpresa erakitzzaileen onura ekonomikorako egingo dela diozue.

Dagoen argudio zehatz bakarra ekonomikoa da. Kanpoko instituzioetatik musu truk 4.000 milioi etorriko direla diote eta hemen inbertituko direla. Ezin dugula horrelako aukera galdu, kupoarekin itzuliko digutela dirua. Kontzertu ekonomikoak baliatuz nik beste gastuak egingo nituzke, etxebizitzaren politikan eta energia, garraioan eta gizarte zerbitzuetan.

AHT ez bada egiten, alternatibarik bai?

Gurekin AHTren aurkako borrokan dauden lagun askok diote ez diogula kapitalismoari alternatibarik eskaini behar. Nire aburuz trantsizio ereduak eta adibideak behar ditugu beste mundu posible hori irudikatzeko. Ez dut uste obra edo azpiegitura erraldoirik behar dugunik, baina bai gure haranen arteko tren sare orekatua eta garraio publikoa hobeto antolatua.

«Herri galdeketa egingo dugu»

ERREDAKZIOA

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlana, Anoetako Gazte Asanblada, Anoetako ezker abertzaleak, Segik eta LABek AHTren aurkako agerria egin zuten atzo. Bihar Anoetan eta Elorrioren burutuko diren herri galdeketa «hauts ugari harrotu dituzte», azaldu dute, «eta Elorriotik etorri zaigun azken albisteak, espero ez genituen konpromisoak hartzea behartu gaitu». Horrela, eragileek «herri galdeketa burutzeko konpromisoa» hartzen dute eta, «duen garrantzia izugarria delako», herritar guztiei deia luzatu die galdeketa parte har dezaten eta AHTren aurkako bozka eman dezaten.

Elorrioko Udalak burutzekoa zuen herri galdeketa debekatu dute. «Anoetan ere prozesu guztiz



Atzo arratsaldean Anoetako eragileek egingo agerraldia. HITZA

demokratiko eta parte-hartzaile hiru Udaletik burutzeko oztopo eta presio asko jasaten ari gara», azaldu dute. Gertaerari «guztiz larriak» iruditzen zaizkie eta AHTren aurkako mugimendua «kriminalizatzea saikeran beste

pauso bat eman dute EAJ eta PSOEk, eta honi konpromiso eta ekimen gehiagorekin erantzun behar diogu». Eragileek gaineratu zuten, «arrazoia gurea da eta denon artean posible da AHT gelditzea».

Gutunak

Herritarren eskubidea delako herri galdeketa

Eskola garaian, zalantzak galdeketa erakutsi ziguten. Gatazkak hitz eginez, iritziak eskatuaz eta emanez konpontzen direla azaltzen ziguten behin eta berriz. Irakasleek aho zabalik eta adi gure hitzak entzuten zituzten.

Etxean, guraso eta anai-arrebak mahai-inguruan eztabaidan aritzea aberasgarria dela zioen gure amonak, gauzak konpondu egin behar direla zioen, eta diogu. Alferrik begiratuko dugu beste aldera. Ados edo kontra egon gaitzke, baina arazoa hauxe da: Gure herria, etorkizunean erabat aldatuko duen proiektu bat, gure herritik urrun dauden bulego batzuetan erabakitzen ari direla, anoetarroi ezertxo ere galdetu gabe.

Gure mendien, gure uren, gure lur, bizitza, kulturaz, antolamenduz, erabakitze eskubiderik ba al dute? Anoetarrok ez al dugu gure herriaren etorkizunaz erabakitze eskubiderik? Zer erakutsiko diegu gure ondorengoei? Beste alde batera begiratzen?

Gure diruaz (ez dezagun ahaztu), Anoetan, nahi dutena eginen utzi behar al diegu? Zergatik ez dugu anoetarrok erabakitzen nolako herri nahi dugun?

Erabakitze eskubidea gurea delako, Anoeta eta anoetarrok etorkizuna guk erabaki dezagun! Abiadura Handiko Trenari buruz informatu eta zure iritzia eman! Abenduaren 2an eman zure iritzia! **Bakarne Garmendia, Nekane Peñagarikano, Izaskun Jauregi, Kontxi Luluaga eta Miren Mujika.** Anoeta.

Durangoako Azokara txangoa

Egun pasa ederra Durangoako Euskal Liburu eta Disko Azokara



Abenduak 6

Saheurtze 10 euro, Liburuak 6 euro

Tolosa 10:00
Vilabona 10:10
Andoain 10:20
*Itzulera: 19:00an Durangotik

RENFE
Olaederra
Txistoki



Isen ematea eta ordainketa: Galtzaundiko bulegoan. 943 655 004





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Legendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Titirijai: Belgikako De Spiegel-en *Dragoi gorria* Gorosabelen 12:00etan eta 17:30ean; Galizako Buratini teatro-ren *Karamelozko hitzak* Kultur Etxean 12:00etan; Errusiako Nizhni Novgorod-en *Elefantetxo* Leidorren 17:00etan.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Inposaketarik ez! AHT ez! manifestazioa 17:00etan.
■ **Ibarra.** EHNAren tramitazioa; eman beharrekoak: 3 argazki, 15 euro eta errola agiria (Ibarra ez bazaude erroldatua).
■ **Tolosa.** 2. Boulder Txapelketa Oargi elkartearen 16:00etan, Mendi Hamabostaldiaren barruan. Izen-ematea, ordubete lehenago bertan edo 637 830380 telefono zenbakian.
■ **Tolosa.** Etorrentzako afaria Uzturre sagardotegian abenduaren 5ean, Nazioarteko Euskararen Egunaren inguruan. Txartelak salgai 22 eurotan ikatza eta Triangulo tabernetan eta Galtzaundin. Prezioa: 22 euro.
■ **Tolosa.** La Jara Extremadurako Zentroak babarrun jatea antolatu digunderako 15 eurotan. Izen-ematea, 675 707619 telefono zenbakian.

Irteerak

■ **Villabona.** Jubilatuta elkarteak Harora (Errioxa) irteera antolatu du abenduaren 12rako: hamaiketakoa Agurainen, Jimeloaren likortegia bisitatu, bazkaria jubilatuta elkartean eta Gasteizera bisita. Izen-ematea, jubilatuta elkartean.

Antzerkia

■ **Ikaztegieta.** Ogiyik karri etzun semia antzerkia kiroldegian 20:00etan, udazken kulturalaren barruan.

Mendia

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera berri bat antolatu du datorren zubitako, abenduaren 6tik 9ra, hain zuzen ere. Perdido eta Marbore mendiak igoko dituzte eta Gorizko aterpean egingo dute lo. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian egin daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritzien erantzunik.

Zaindariaren Astea ospatu berri dute Tolosako Hirukide ikastetxean; hori dela eta, ekitaldi ugari egin dituzte ikasle eta irakasleek.

Zaindariaren omenez



ERREDAKZIOA

Zaindariaren astea ospatu berri dute Hirukiden. «Merezi moduan» ospatu nahi izan dute eguna, horretarako ekitaldi ugari izan zituztelari: musika emanaldia, jolasak, kirolak, lehiaketak, eukaristiaik... Ostiralean, gainera, irakasle batzuz omendu zituzten, lanean 25 urte bete zituztelako: Nekane Garayalde eta Mari Jose Eceiza. Mari Carmen Oiarzabala eta Pilar Amondarain ere omendu zituzten, azken urtea dutelako.



Goian, ikasleak partidareondoren; behean, irakasle omenduenak. HITZA

A Agurrak



Zorionak bikote!

Karnele eta Jose Ramon. Zuen zilarrezko ezteietan, ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Zorionak Ekain.
Muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com

Abenduak 3 • Astelehena
16:30

Arruti - Merino I

EUGI - NALDA III
OLAZABAL - GOÑI III

Larralde - Arizmendi
Cabrerizo - Urberuaga

Tolosako Beotibar pilotalekuan